

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko otsailaren 2ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– **Zerga premiazko araugintzako dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 zerga premiazko araugintzako Dekretua, otsailaren 2koa. Onespena ematea Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioari, zeinaren bidez aldatzen baita 2016/1164 (EB) Zuzentaria, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoak dagokienez.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 34/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldiko Araugintza Planari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 35/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan duen ordezkari berritzeari.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onespena ematea Eulen SArentzako 439.321,27 euroko kreditu esleipenari, 2021eko urtarrilaren 1etik apirilaren 3ra arteko aldirian eraikinak garbitzeko zerbitzua eta COVID-19aren ondoriozko ezohiko garbiketekin lotuta dauden eta aurreikusitako ezin diren beharrak finantzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 37/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiarentzako eta derrigorrezko dirubilketaren erakunde kudeatzailearentzako posta zerbitzuetarako Sociedad Estatal Correos y Telégrafos SA SMErekin egindako kontratuaren indarraldia mantentzeko, kontratu berria formalizatu arte.

Foru Gobernu Kontseiluaren 38/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onespena ematea Sociedad Estatal Correos y Telégrafos SA, SME, enpresari adjudikatzeari Arabako Foru Aldundiarentzako, haren erakunde autonomo Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoarentzako eta derrigorrezko dirubilketaren erakunde kudeatzailearentzako posta zerbitzuak, eskaintako aleko prezioetan eta 2022ko abenduaren 31 arteko gauzatze epearekin.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Egintza bat baliozkotzea, nahiz eta Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak haren aurkako eragozpen txostenak egin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onestea alda dadila Foru Sektore Publikoaren 2020-2022 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsi baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 41/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onestea alda dadila azalera eskubidea lagatzeko kontratua, apirilaren 17ko 273/2019 Erabakiaren bidez onetsia.

#### GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onestea lankidetzaz hitzarmenak izenpetu daitezela Arabako 20.000 biztanletik beherako udalerriekin, Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren eskumenak eskuordetzeko eta Eguneko Arretarako Landa Zentroko garraio egokituaren zerbitzuaren kudeaketa esleitzeko.

#### KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 43/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onespena ematea hainbat partida atxikitzeari, Kontseiluaren ekainaren 19ko 27/2018 Foru Dekretuaren arabera izapidetu beharreko gastuak ordaintzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 44/2021 Erabakia, otsailaren 2koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko eskola kiroleko kanpainan parte hartzen duten kirolariak eramateko garraio zerbitzua adjudikatzeari, kontratua formalizatzen denetik 2021eko abenduaren 31ra arteko aldirako.